

BERTSO KOMIKIA

Zenbat jende irakurzaletu den komikiekin...

Komikia bai pagotxa! Marrazki asko, letra gutxi, eta umorea brausta-brausta.

Antzekotasunak badituzte bertsoak eta komikiak, oraintxe ikusiko dugun bezala.

Atera dezagun gure artista bihurria eta, arkatza hartuta, goazen ingurukoei adarrak eta biboteak jartzera...

Nahi badugu, gelako komiki guztiekin erakusketa bat ere egin genezake ikastetxean!



KOMIKIA ETA BERTSOA AZERIA ETA OTSOA

Hara hemen Sustrai Colina eta Patxi Gallego, aurrez aurre.
Bientzat gaia edo eszena bera izango da.
Batak bertsotan marraztuko digu, eta besteak komikiz esango.



**Sustrai
Colina**
Akordarrementeria

Saioa: Txapelketa Nagusia 2013, Maule.
Gaia: Neork ez zuen espero. Baina lortu egin duzu.




Doinua:
ETAren su-etenetik
Neurri berezia

Hamazazpi urte ditut
ia ia egin naiz **handi**
hortzetako aparatua
eta agnea **ugari**,
sudurpean hiru bizar
agertzen zaizkit **nabari**...
Horrelaxe jaio nintzen
ta bota kulpak **amari**!
Lagunak trufaka dauzkat
beti adar-jotzen **ari**:
"lakuko zisne itsusia"
deitzen zidaten **aspaldi**...
Ta gaur muxu eman diot
klaseko **ederrenari**.

Hileak baneramatzan
bere atzetik **zer-suma**
nahiz zaila diren elkartzen
larrosa eta **asuna**.
Amaia oso jatorra,
ederra bezain **txukuna**,
bilakatu dut maitea
nere printzesa **kuttuna**.
Berak berezkoa dauka
halako **edertasuna**
eta nik hori ezean
bada, **naturaltasuna**.
Gure amak arrazoi zuen:
itsua da **maitasuna**!

Berai esker bihotz forman
ikusten nuen **arbela**
beregana zijoazen
konpasa ta **erregela**.
Muxu bat eman ta utzi nau
emozioz **mela-mela**
bukatu da rekreoa
ta hau da sentipen **itzela**!
Pasilloan hortxe noa
nere zain dut **ikasgela**
han sartu naiz toreroa
zezen-plazara **bezela**
nere inbiritan daudenak
izorratu **daitezela**!

Patxi
Gallego
Palacios






ESTEREOTIPOEKIN JOLASEAN

Umorea egiteko bide bat da estereotipoekin jolastea: pertsonaia bati izaera oso markatua ematea, eta denek "aurreikustea" nortasun horretatik zer egingo lukeen, zer hizkera modu erabiliko lukeen, zer arropa...

Ikus dezagun, bada, eszena berbera izanik, pertsonaia estereotipatu bakoitzak nola erreakzionatzen duen.

Hara nola hasten duten eguna hiru pertsonaia hauek; ea bakoitzak zer esaten dion ispiluari, eta zer jarreraz irteten diren mundura.







IZENA ETA IZANA

Jolas gaitezen komiki biñetan agertu diren pertsonaia estereotipatu horiekin.

Esan dezagun, pertsonaia bakoitza ikusita, zer datorkigun burura:

Zein izen jarriko genioke? Eta nolakoa da? Deskribatu dezagun ahalik eta bitxikeria gehienekin: zein da bere bizitzako ilusioa, zein da gehien errepikatzen duen hitza, zein da bere objektu kuttuna, zer gorroto du gehien...?

IZEN-ABIZENAK

IZEN-ABIZENAK

IZEN-ABIZENAK

DESKRIBAPENA

DESKRIBAPENA

DESKRIBAPENA



GURE SUPER-HEROIA!



Guk ere gure super-heroia sortuko dugu, zer arraio!
Horretarako beharko ditugun osagaiak:

- 1.-**Kausa** bat. Zer salbatzen tematuko da, zeren aurka borrokatuko da egoskor? Zein ditu etsai?
- 2.-**Super botereak**. Zertan da bakarra munduan?
- 3.-**Uniformea**. Ttak!, neurrira eginda bere gorpuzkerari.
- 4.-**Izena**.

IZENA

KAUSA

SUPER BOTEREAK





ELKARRIZKETA SORTZEN



Amonak eta punk gandordunak ez dute berdin hitz egiten. Umorea egiteko beste elementu bat da hizkera, eta pertsonaia bakoitzak berea du. Komikian leku gutxi dago, gainera. Beraz, motzetik, bertsotan bezala: hitz gutxi, eta haiek onak!





Istorio laburrak sortu dizkigu Patxik, geuk jartzeko elkarrizketak, irrintziak eta mekabenzotzak. Eredua ikusiko dugu. Ondoren, istorioetako bat hautatuko dugu, eta ea zer elkarrizketa bitxi sortzen dugun...

HARMAILATIK











Nahi duenak, horra orri zuria: norberaren esku istorioa, pertsonaiak eta elkarriketak... Gozatu!

